



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/06/23

Berriatuak Atxurrako leizeko pintura paleolitikoen 3D irudikapena izango dau

Lorea Bilbao Bizkaiko Euskera eta Kulturako diputatua Talde Mistoak eskatuta agertu da gaur Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean, Berriatuako Atxurrako leizean orain 14.000 urte inguruko 70 grabau eta pintura baino gehiago aurkitu dirala eta. Aldundiko arduradunak azaldu dauenez, leizea ez da jendearentzat zabalduko, grabauak kontserbau ahal izateko eta bertara joatea arriskutsua izan daitekelako. Dana dala, pertsona guztiek izango dabe bertako aberastasunaz neurri handian gozatzeko aukerea, 3Dn irudikatze egiten ari diran beharrak dirala eta. Erreplika digitala Berriatuan egongo da ikusgai.

Bilbaok ez dau baztertu “datozan hilebeteetan” Atxurran edo “inguruko beste leku batzuetan” pintura gehiago aurkitzeko aukerea. Dana dala, grabauen aurkikuntzak, berak, arte paleolitikoaren “munduko mapan jarri gaitu”. “Malaysia, Turkia, Txile, Frantzia... moduko herrialdeetako komunikabideen bisita eskariak heldu jakuz”. Diputatu andreak onartu dauenez, oihartzunak “modu positiboan gainditu gaitu”.

Diego Garate buru izan dan arkeologo taldeak animalien irudiak identifikatu ahal izan ditu, “zaldiak, bisonteak, ahuntzak, oreinak eta uroak” batez be. Aldundiak kata arkeologikoak egingo ditu, leize barruan “silexezko lanabesak” dagozala dinoen aztarnak aurkitu diralako.

Euskera eta Kulturako diputatuak azpimarratu dauenez, “oso aurkikuntza garrantzitsua eta ez ohikoa da hormako arte paleolitikoa ezagutzeko”, aurkitu dan panel eta irudi apaindu kopuru handiari esker –gure inguruan Altxerrigaz, Ekaineaz edo Erberuagaz baino ezin daitekez alderatu– eta material arkeologikoa daben eta ikutu barik dagozan zoruak be aurkitu diralako. Gaur egun uste dogunez, Euskadin grabau gehien dituan leizea da, gitxienez apaindutako 14 panel ditu eta.

Bilbaok gogoratu dauenez, Atxurrako aztarnategi arkeologikoa J.M. Barandiaranek aurkitu eban 1929an, eta 1934 eta 1935 artean indusketa lanak egin ziran bertan, baina 2014an ekin jakon barriri aztarnategiaren potentziala baloretako proiektuari. Pinturak igazko irailean aurkitu ziran.

Momentuz, hormako arte paleolitikoaren ebidentziak, sartzeko oso gaitzak diran lekuetan dagoz, sarreratik “200 eta 300 metro arteko distantziara” eta “3 eta 4 metro arteko altuera” dauen galeria batean. Hori dala eta, pintura horreek aztertzea gaitza da, aldarnioak eta segurtasuneko sistemak instalatu behar diralako. Erabili dan teknika grabaua da ia osorik, hainbat moetakoa. Batzuetan pintura ilunagaz konbinetan da, aurkitu diran “ikatz baltz” aztarnak erakusten dabenez.

Aurkikuntzaren balio handia eta daukan egoera makala dirala eta, Aldundiak, ondare arkeologikoa kontserbetarean alde egiteko eta bertara sartzek pertsonentzat izan daiketan arriskua dala eta jende guztiaren segurtasuna babesteko dauen konpromisoa kontuan izanda, eta adituen aholkuei kasu eginda, leizea jendearentzat zabalik ez egotea erabagi dau, gainera, gizakiaren presentziak leizearen baldintzak aldatu daikezalako. Atxurrak gordetzen dauen



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

aberastasuna ikusi gura dabenentzat, leizea 3Dn digitalizetako lanak egiten ari dira, interesauta dagozan guztiei ahalik eta gehien zabaltzea bermatzeko. Erreplika hori Berriatuan instalauko da.

ONARTU EZ DIRAN ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENAK

Beste alde batetik, Euskera eta Kulturako Batzordeak arauz besteko bost proposamen landu ditu, baina bat be ez dau onartu. Horreetako batean, Bizkaiko Talde Popularrak eskaria egin dau, Foru Aldundiak futboleko Bigarren B Mailako Bizkaiko taldeei urtero emoten eutsen 90.000 €-ko diru-laguntzea “barriro be indarrean” jarri daian. Podemos Bizkaia taldeagaz sinatutako zuzenketa-eske transakzional baten bitartez, laguntza horreek zidarrezko mailako emakumeen taldeetara be zabaltzea eskatu da.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeak alkartuta agertu dira profesionalak ez diran goi mailako kirolak bakarrik laguntzeko Foru Erakundeak hartu dauen erabagiaren alde. Gizonezkoen “talde horreek laguntzen emon doguzan hamabi urteak nahikoa eta gehiago” izan dira, José Angel Basauri jeltzaleak azaldu dauenez. Bere eretxiz, beharrezkoa zan laguntza horreei “mugea” jarrea. Juan Oterminen ustetan, laguntzak “bidezko” izateari itzi eutsien Futbol Federaziotik kategoria horren profesionaltasuna bultzatu zanean. Une honetan, Bigarren B mailan dagozan 79 taldeetatik “63” profesionaltzat hartzen dira. 460 profesional eta kontratautako “6.000 pertsona baino gehiago” batzen ditue.

EH Bildu taldeak, bere aldetik, Berangoko Aldai baserria iraunarazotea eta Kultura Intereseko Ondasun izendatzea eta Eskola Kiroleko begiraleak prestetako programea martxan jarrea eskatu dau. Ostalaritzako jarduerarako emon dan udal lizentzia geratzeko eskaria be egiten eban ekimen hori be ez da onartu, Foru Gobernua eusten daben talde biek kontra bozkatu dabelako. Ana Esther Furundarena jeltzaleak adierazo dauenez, XVI. mendeko baserriak obrak izan ditu “barruan, egituran eta teilatuan”, eta horrek jatorrizko itxurea aldatu du. “Behar bada” “toki mailako” babesa kontuan hartu daiteke, baina ez “erkidego mailakoa”.

Talde Mistoak, arauz besteko beste proposamen baten bitartez, Aldundiak, Bizkaikoaren bitartez, Argiñetako Interpretazino Zentroaren lanak gauzatzen diran artean, Argiñetako jatorrizko hilarriak eta sarkofagoak aldi baterako zaintzea eskatu dau. Maiatzean, Elorriion dagoan nekropoli horretan hilarri baten kopia lapurtu zan. EAJ-PNV eta PSE-EE taldeak nekropoliko baliozko elementuak lekuz aldatzearen kontra agertu dira, ez dagoalako “definitutako” proiekturik ezta “partida ekonomikorik” be Argiñetako moltsorako. Gainera, Elorrioko Udalak “be izango dau zer esanik”, adierazo dau Juan Otermin sozialistak.

ATZERATUTAKO PROPOSAMENEN EZTABAIDEA

Euskera eta Kulturako Batzordeak, aurreko saio bateko eguneko gai zerrendan egozan Arauz besteko proposamen bi be landu ditu. Arturo Aldecoa batzordekideak Arauz besteko proposamen bat aurkeztu dau, Batzar Nagusiek eskaria egin deioen Aldundiari, Ruzabaleko Batzarraren ordenantzak onartu izanaren V. mendeurrena ospatzeko argitalpen bat egiteko aukera aztertu daian. Bizkaiko Batzarrek ez dabe onartu proposamena, hori argitaratzeak izango leuken kostua dala eta, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako botoakaz eta batzarretako gainerako taldeen abstentzinoagaz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Arauz besteko beste ekimen batean, PP taldeko batzordekide ohiak, Foru Aldundiak, UNESCOk Bizkaia Zubia Gizateriaren Ondare izendatu izanaren hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldiak bultzatzeko modurik hoberena azertu daiala eskatu dau. Zubiaren titularitatea Estatuarena da. “Ez jagoko Aldundiari”, erantzun deutso Euzko Abertzaleak taldeko Mikel Baganek. Bere eretxiz, bultzada hori, zubiaren emakidea dauen Transbordador de Bizkaia S.L. enpresak hartu beharko leuke bere gain. Ez da ahaztu behar enpresak “urtean 24.000 euro” jasoten dituala daborduko Foru Aldundiaren eskutik, beste zeregin batzuetarako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
23/06/2016

Berriatua contará con una recreación en 3D de las pinturas paleolíticas de la cueva de Atxurra

La diputada de Euskera y Cultura de Bizkaia, Lorea Bilbao, ha comparecido hoy en las Juntas Generales de Bizkaia, a petición del grupo Mixto, para informar del hallazgo de 70 pinturas murales de hace unos 14.000 años de antigüedad descubiertas en la cueva de Atxurra. La responsable foral ha explicado que la cavidad no va a abrirse al público para tratar de conservar los grabados y por los riesgos que entraña su acceso, pero que el público podrá apreciar su riqueza en buena medida a las labores de reproducción en 3D que se están llevando a cabo. La réplica digital será expuesta en Berriatua.

Bilbao no ha descartado que "en los próximos meses" se puedan encontrar más pinturas en Atxurra o "en otros lugares de la zona", aunque ya de por sí el descubrimiento de los grabados "nos ha situado en el mapa mundial" del arte paleolítico. "Nos han llegado peticiones de visitas de medios de comunicación de países como Malasia, Turquía, Chile, Francia...". La diputada ha admitido que la repercusión "nos ha desbordado positivamente".

El equipo de arqueólogos liderado por Diego Garate ya ha podido identificar representaciones de animales dominados por "caballos, bisontes, cabras, ciervos y uros". La Diputación llevará a cabo "catas arqueológicas" ya que dentro de la cueva hay evidencias de la existencia de "útiles de sílex".

La diputada de Euskera y Cultura ha subrayado que "se trata de un hallazgo determinante y excepcional en el conocimiento del arte parietal paleolítico" gracias a la gran cantidad de paneles y figuras decoradas localizadas -solamente comparable con Altxerri, Ekain o Erberua en el entorno más próximo- y por la presencia de algunos suelos intactos con material arqueológico. A día de hoy, se estima que sea la cavidad con mayor número de grabados de Euskadi con al menos 14 paneles decorados.

Como ha recordado Bilbao, el yacimiento arqueológico de Atxurra fue descubierto por J.M. Barandiaran en 1929 y excavado entre 1934 y 1935, aunque no fue hasta 2014 cuando se retomó el proyecto para valorar el potencial del yacimiento. Las pinturas se descubrieron en septiembre del año pasado.

Por el momento, las evidencias de arte parietal paleolítico identificadas se encuentran en repisas de muy difícil acceso a "entre 200 y 300 metros" de distancia de la entrada y en una galería de "entre 3 y 4 metros de altura", lo que hace que su estudio resulte arduo ya que es necesaria la instalación de andamiajes y sistemas de seguridad. La técnica utilizada casi en exclusiva es el grabado en distintas variantes, que en ocasiones se combina con pintura oscura por los restos de "carbón negro" encontrados.

Dado el alto valor del descubrimiento y el delicado estado en que se encuentra, la Diputación, en su compromiso por la conservación del patrimonio arqueológico y la integridad de las personas ante la peligrosidad de su acceso, ha decidido por recomendación de los expertos que la cavidad no esté abierta al público, puesto que, además, la presencia humana podría llegar



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

alterar las condiciones de la cueva. Para el que quiera apreciar la riqueza que guarda Atxurra, se está trabajando en las labores de digitalización en 3D de la cueva para garantizar su máxima difusión a todos los interesados. Esta réplica será instalada en Berriatua.

PROPOSICIONES NO DE NORMA RECHAZADAS

Por otro lado, la comisión de Euskera y Cultura ha debatido cinco proposiciones no de norma que han sido finalmente rechazadas. En una de ellas, el grupo Popular Vizcaíno planteaba que la Diputación “restituyera” la subvención de 90.000€ que se concedía anualmente a los clubes vizcaínos de la Segunda División B de fútbol. Una enmienda transaccional firmada con Podemos Bizkaia pretendía ampliar estas ayudas a los clubs femeninos de la división de plata.

PNV y PSE-EE se han alineado con la decisión de la Institución foral de subvencionar únicamente a deportes de élite no profesionales a través de la fundación Bizkaialde. “Doce años” subvencionando a estos clubs” masculinos ha sido “más que suficiente”, ha explicado el jeltzale José Angel Basauri, para quien era necesario establecer “un límite” a estas ayudas. Según Juan Otermin, las ayudas dejaron de ser justas cuando se impulsó desde la Federación de fútbol la profesionalidad de esta categoría. Actualmente, de 79 clubs que militan en la 2ªB, “63” son considerados profesionales. Integran 460 profesionales y “más de 6.000” personas contratadas.

Por su parte, EH Bildu ha pedido la preservación del caserío Aldai en Berango y su declaración como Bien de Interés Cultural por parte del Gobierno vasco. La iniciativa, en la que se pedía la paralización de la licencia municipal de actividad hostelera, ha sido también desestimada por la Cámara vizcaína por los votos contrarios de los dos grupos que sustentan el Gobierno foral. Según la jeltzale Maria Esther Furundarena, el caserío del siglo XVI ha sufrido obras en su “interior, estructura y tejado” que han cambiado su aspecto original. “Tal vez” pudiera considerarse una protección “local” y no tanto con “nivel comunitario”.

Asimismo el grupo Mixto reclamaba, por medio de otra propuesta no de norma que la Diputación, a través de Bizkaikoa, salvaguardase temporalmente las estelas y sarcófagos originales de Argiñeta mientras se materializan las obras del futuro Centro de Interpretación. En mayo, se produjo el robo de una réplica de estela en esta necrópolis situada en Elorrio. PNV y PSE-EE se han mostrado contrarios a trasladar los elementos de valor de la necrópolis porque aún no existe un proyecto “definido”, “ni partida económica” para el conjunto de Argiñeta. Además, el ayuntamiento “tendrá algo que decir”, ha dicho el socialista Juan Otermin.

DEBATE DE INICIATIVAS APLAZADAS

La comisión de Euskera y Cultura ha tratado también dos proposiciones no de norma incluidas en el orden del día de una sesión anterior. El juntero Arturo Aldecoa firmaba una proposición no de norma para instar a la Diputación a estudiar la edición en papel de una publicación conmemorativa del V Centenario de la aprobación de las Ordenanzas de la Junta de Ruzabal. El Parlamento vizcaíno, con los votos contrarios de PNV y PSE-EE, y la abstención del resto de grupos junteros, se ha negado por el coste que supondría su edición.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En otra iniciativa no de norma, el exjuntero del PP reclamaba que la Institución estudiase la mejor manera de impulsar la celebración del décimo aniversario de la Declaración por la UNESCO del Puente de Bizkaia, de titularidad estatal, como Patrimonio de la Humanidad. “No le corresponde a la Diputación”, ha respondido Mikel Bagan, del grupo juntero Nacionalistas Vascos, que cree que el impulso debe recaer en la empresa concesionaria Transbordador de Bizkaia S.L., que ya recibe “24.000 euros anuales” de la Institución foral para otros menesteres.